



BERGARA 2030

egin herrixa

BERGARA 2030 PLAN ESTRATEGIKO
JASANGARRIAREN ZIRIBORROA

2021eko irailaren 28a

“Bergara 2030, egin herrixa” Plan Estrategikoa diseinatze prozesuko diagnostiko fasean, lehen diagnostiko teknikoa herriko eragile ezberdinekin izandako elkarrizketa saioetan jasotako ekarpenekin osatu ahal izan zen eta, apirilean izandako lehen herri-batzarrean, herritarrekin eginiko lanketatik 2030erako ikuspegia definitu zen. Herritarrei 2030 urtean Bergarak izan nahiko zituzketen ezaugarri nagusiak zehazteko eskatu zitzairen eta gehien nabarmendu zituzten kontzeptuekin osatu da 2030erako ikuspegia (ikuspegia islatzen duen testua maiatzean zehar udal langileekin egindako barne-lanketari esker aberastu da):

Bergara inklusiboa izango da 2030ean, adin, jatorri eta egoera ezberdinean aurkitzen diren herritarrei enpatiaz erantzungo diena. Ekonomia eredu jasangarriaren bidean, herritar orori lan duina eskaintzen dion eta aldi berean natura zaintzen duen komunitatea izango gara, osasuna lehentasun izanik herri goxo batean bihurtu dena. Gizarte euskalduna izango da gurea, kultura-, kirola- eta hezkuntza-eskaintza zabala dituen. Ikuspegi parte-hartzaile eta feministatik erronka berriei aurre egiten dien auzo-herria izango gara.

Apiriletik uztaile bitartean antolatu diren udal mahai teknikoetan eta herritarrekin batera garatutako gaikako mahaietan jasotako ekarpenak aztertu ondoren, Plan Estrategiko Jasangarriaren bertsio berri hau osatu da.

1. HELBURU ESTRATEGIKOA: HIRI-EREDU INKLUSIBO ETA JASANGARRIA SORTZEA, HERRITARREN ONGIZATEARI BEGIRA DAGOENA ETA KLIMA-ALDAKETA ARINTZEAZ GAIN, HORRETARA EGOKITZEN DENA

1.1 Jarduera programa: hirigintza orekatu, erresiliente eta bioklimatiko baterako eraldaketa.

1.1.1.ekintza: orain arteko hirigintza-plangintzari buruzko eta etorkizunean Bergarak izan nahi duen hiri-ereduari buruzko hausnarketa-prozesua aurrera eraman.

1.1.2.ekintza: HAPO berria 2023an diseinatzen hasteko urratsak ematea.

1.1.3.ekintza: etxebizitzaren birgaitzea eta etxe hutsak eskuragarri jartzea errazteko neurriak ezarri.

1.1.4.ekintza: eraikitako ondarearen nahiz hiri-altzarien zaintzarako, biziberritzerako eta horien balioen ezagutzarako mantenu- eta inbertsio-plana diseinatu eta martxan jarri.

1.1.5.ekintza: industria-eremuen plangintza berri bat antolatzea irizpide jasangarriak aplikatuz.

1.1.6.ekintza: auzoek dituzten oinarrizko azpiegitura eta zerbitzu beharrak (ur hornidura, bideak, saneamendua, etab.) inbentariatu eta faseka garatzeko inbertsio-plangintza bat garatzea.

1.2 Jarduera programa: Hiri-mugikortasun jasangarriaren garapena bultzatu.

1.2.1 ekintza: mugikortasuneko plan jasangarria diseinatu eta martxan jarri.

1.2.2 ekintza: eremu publikoa birdiseinatzea, oinezkoa erdigunean jarriz.

1.2.3 ekintza: motordun ibilgailu pribatuaren erabilera arrazionalizatzea.

1.2.4 ekintza: mugitzeko modu alternatibo seguruak bultzatzea.

1.2.5 ekintza: garraio publiko eraginkorra bermatzea, herriaren eskalara egokitzen dena.

1.2.6 ekintza: udal biltegiak zentralizatzea kotxe bidezko udal-langileen mugimenduak ekiditeko.

1.2.7 ekintza: GI-627 eta Ertzainaren arteko zubiari irtenbidea eman.

1.2.8 ekintza: San Juango industria gunera doan errepedea hobetzeko asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lanketa bat ahalbidetu.

1.2.9 ekintza: mugikortasun jasangarriaren aldeko sentsibilizazioa lantzea.

1.2.10 ekintza: landa eremuetako mugikortasun aukera ezberdinak bermatu.

- 1.2.11 ekintza: Larramendi industria gunera iristeko mugikortasun aukerak hobetzeko neurriak ezarri

1.3 Jarduera programa: berdeguneen eta natura-ondarearen kudeaketa-eredu berria sustatu

- 1.3.1. ekintza: Bergarako natura-ondarearen diagnostiko osoa izateko beharrezko ikerketa-lanak garatu.
- 1.3.2 ekintza: natura-ondarearen babesa eta bere erabilera jasagarria ahalbidetuko duen plan berezi baten osaketa.
- 1.3.3 ekintza: Udaletik ingurumen eta biodibertsitate balio handienak dituzten lurren erosketa-programa martxan jarri, klima-aldaketaren aldagaia ere irizpide moduan barneratuz.
- 1.3.4 ekintza: herritarrak natura-ondarearen eta paisaiaren zaintzan inplikatzeko neurriak ezarri eta eragileen arteko lankidetzeta-sarea sortu.
- 1.3.5 ekintza: herriko berdeguneak zabaldu, horien arteko lotura bermatu eta berdeguneen sare bat osatzeko kudeaketa-plana diseinatu, klima-aldaketara egokitzeko eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko duten potentziala bultzatuz.
- 1.3.6 ekintza: ibaia eta errekek zaindu, balioan jarritz.

1.4 Jarduera programa: klima-aldaketa arintzeko energia-trantsizioa ahalbidetu eta klima-aldaketara egokitzeko baliabideak definitu

- 1.4.1 ekintza: Udal eta udalerrri mailako energia-plangintza osatzea, klima-aldaketa barne hartzen duena.
- 1.4.2 ekintza: Udal-mailan energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna bultzatu.
- 1.4.3 ekintza: Udalerriko beste sektoreetan energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna bultzatu.
- 1.4.4 ekintza: gertuko ekoizpenean oinarritutako energia-iturri berriztagarrien aldeko apustua egin, udal-plangintza urbanistikoaren bidez energia berriztagarrien sistema ezberdinen ezaugarriak eta mugak finkatuz.
- 1.4.5 ekintza: Udal larrialdi-plana berrikusi eta klima-aldaketaren aldagaia txertatu.

1.5 Jarduera-programa: natura-baliabideen erabilera arduratsua sustatu, herritarren osasuna eta herriaren ingurumen kalitatea zainduz.

- 1.5.1 ekintza: auzo-konpostaren eredua birdiseinatu.

- 1.5.2 ekintza: Debagoienako Mankomunitatearekin elkarlanean gaikako bilketaren eraginkortasuna hobetzeko aukerak aztertu.
- 1.5.3 ekintza: Kontsumo eredu berriak sustatzeko programa pedagogikoak eta proiektu pilotuak abian jarri, baliabideen kontsumoa murriztean (ura, energia, etab.) eta ekonomia zirkularrean oinarrituak.
- 1.5.4 ekintza: Hiri barruko ur-zikinak jasotzeko sarea osatu, bere osotasunean araztegi bideratuz, eta landa eremuko etxebizitzetan bestelako irtenbideak ezartzeko dirulaguntzen lan-ildoari jarraipena eman.
- 1.5.5 ekintza: uraren ustiapen jasangarria sustatzeko hiriko drainatze-sistema jasangarriak ezarri.
- 1.5.6 ekintza: zarata-mapa berrikusi, zarata-iturri ezberdinak aztertuz eta zarata ekiditeko neurriak hartuz.

2. HELBURU ESTRATEGIKOA: TRANTSIZIO SOZIOEKOLOGIKOAN OINARRITUTAKO GARAPEN EKONOMIKOA BULTZATZEA, INKLUSIBOA, BERRITZAILEA ETA JASANGARRIA, ETA KALITATEZKO ENPLEGU OSOAREN ALDE EGITEA.

2.1. Jarduera-programa: lehen sektorea suspertzea, jarduera ekonomikoa herritarren osasunarekin, kalitatearekin zein naturaren zaintzarekin uztartuz eta oreka lortuz.

2.1.1 ekintza: lehen sektorean aritu nahi dutenen lana errazteko eta belaunaldi-arteke erreleboa bermatzeko asmoz, elikadura burujabetzarekin bat datozen neurriak ezarri, baliabideak eskaini eta oztopoak gainditu.

2.1.2 ekintza: basogintzari alternatiba jasangarri eta bideragarriak bilatzea.

2.1.3 ekintza: Oxirondo Azokaren ekintza-plana diseinatzea eta martxan jartzea, azokaren berrantolaketa eta ikuspegi-aldaketa bultzatzeko.

2.2. Jarduera-programa: ingurumen arloko berrikuntzan oinarritzen den eta klima larrialdiari aurre egiteko gai den bertako eredu sortzea eta abiaraztea (industria sektorean, hezkuntzaren arloan, bertako ekoizpenean eta ekoizitako produktuen merkaturatzean).

2.2.1 ekintza: ekonomia zirkularrari lotutako programa eta ekimen zehatzak martxan jarri:

2.2.2 ekintza: klima-aldaketaren aurrean sortu daitezkeen aukera ekonomiko berriak identifikatu eta lantzeko aukerak sustatu:

2.3. Jarduera-programa: Bergaran sortutako enpresen eta bertan garatutako proiektuen aldeko apustua egitea, lankidetzaren publiko-pribatua sustatuz.

2.3.1 ekintza: kalitatezko prestakuntza-eskaintza bultzatu eta sentsibilizazio kanpainak aurrera eramanez berritzaileen inguruan.

- Bergarako historia zientifikoa gogorazi, eraginkortasunez eta harrotasunez aurrera egiteko.
- Laboratorium museoko proiektuak eta museoaren baitan egiten den lanketa herritarrei helarazteko komunikazio kanpainak habian jarri, besteak beste, merkatariekin eta ostalariekin elkarlanean.

2.3.2 ekintza: jarduera eta ekimen sozio-ekonomiko berriak/pilotuak sustatu eta partekatu, Bergarako duen tradizio zientifikoa zein berritzailean oinarrituz:

- Adituak diren edo esperientzia zabala duten erakundeekin edo eragileekin elkarlana bideratzea (BIC Gipuzkoak Arrasaten duen bulegoaren bidez, esaterako).
- Prestakuntza-zentroekin lankidetzarako guneak sortzea, ekintzaitza zein proiektuen garapena bultzatzeko.

2.3.3 ekintza: enpresen barne-ekintzaitza bultzatu enpresen dibertsifikazio-proiektuak sustatuz eta lagunduz.

2.4. Jarduera-programa: industria-sektorean diharduten enpresak indartzeko eta elkarren arteko sarea sendotzeko baliabideak eskaintzea.

2.4.1 Ekintza: Bergarako enpresak herritik ez joateko eta enpresek era berean Bergaran kokaleku interesgarria izateko neurriak hartu (1.1.6 ekintzarekin lotura duen ekintza da).

- Enpresek behar duten talentua erakarri eta Bergarako talentua bertan errotu dadin programak sustatu.
- Industria guneak egokitu eta erakargarri bihurtu.
- Lur industrial egokia.

2.4.2 ekintza: enpresen jarduerak bertako merkatutik haratago zabaltzeko baliabideak bultzatu, enpresa txiki eta ertainei ere sostengua emanaz.

2.4.3 Ekintza: ENPRESARE eta FEX bezalako ekimenen zereginak babestu eta indartu, sinergia ezberdinen baturan lan egiteko:

- Enpresen arteko lankidetzarako tresnak/foroak indartu. Eragile ekonomiko ezberdinen elkarlan eta sinergien baturarako paper garrantzitsua betetzen dute.
- Ekintzaile ezberdinen arteko elkarlana bultzatu eta baliabideak partekatu.
- Logistika-sare kooperatiboak bultzatu.

2.5. Jarduera-programa: zerbitzuen sektorea babestea, bisitariak erakartzea, egoiliarrek mantentzea, establezimenduen irudia hobetuz eta Bergarari giroa emanaz.

2.5.1 ekintza: Turismo plana abian jartzea.

2.5.2 ekintza: Merkataritzaren Biziberritzeko Plan Berezia (PERCOa) egikaritu.

- Merkataritzaren hiri espazio adeitsuago eta irisgarriagoa.

- Erakargarritasuna: gune historikoan lokal eta jarduerak berreskuratu, turismoa aktibatu, azoka biziberritu.
- Merkataritzaren dinamizazioa jarduera eta ekimen desberdinekin.

2.5.3 ekintza: zerbitzu sektoreko lokalen legeztatzean pausuak ematea.

2.5.4 ekintza: hutsik dauden merkataritzarako lokalak erabil daitezzen neurriak ezarri.

- Udalak lehen urteetan ekintzaile berriei alokairuan laguntza bat eskaintzea
- Hutsik dauden lokalak alokairuari begira erakargarri izan daitezzen eta kanpoko itxura ere zaindu dezaten egin beharreko egokitze lanak bultzatu.

2.5.5 ekintza: merkataritzan eta ostalaritzan (digitalizazioa, ...) zerbitzu profesional eta euskaldun bat lortzeko baliabideak eskaini:

- Prestakuntza bultzatu
- Dirulaguntzak eskaini
- Ordu-tegi eta soldata duinak bermatu
- Ticketbai sistema berriaren euskarazko bertsioa bermatzeko laguntza eskaini.

2.5.6 ekintza: herritarren kontsumoa fidelizatzeko kanpainak antolatu.

- Bedelkar elkar-teak betetzen duen funtzioa balioan jarri eta indartzeko neurriak ezartzea.
- Herriko enpresen artean kontsumoa fidelizatzeko kanpaina egin (adibidez: langileen artean erosketa-bonuak banatu). Honekin sektore berri baten konprometua lortzearekin batera bertako kontsumoan kontzientziazioa piztea lortuko litzateke.
- Internet bidezko erosketek bertako merkataritza eta ostalaritzan egiten duten kaltea herritarrei jakinarazteko eta kontzientzia pizteko "inpaktu" kanpaina bat antolatu.

3. HELBURU ESTRATEGIKOA: HERRITARREN ONGIZATEA BERMATUKO DUEN ETA HERRITARREN ARTEKO LANKIDETZAREN ZEIN ZAINZAREN BALOREAK SUSTATZEN DITUEN GIZARTEA ERAIKITZEA.

3.1. Jarduera programa: herritarrei eskainitako gizarte-zerbitzuei eta prestazioei buruzko kalitatea hobetzea, horien eraginkortasunean sakonduz.

3.1.1 ekintza: gizarte zerbitzuen arloan eskaini beharreko zerbitzuak hobetzeko bertara bideratutako baliabide pertsonal zein profesionalen hausnarketa egin eta baliabideak bideratu:

- Herritarren premien azterketa (diagnosia) aurrera eraman eta eskaintzen zaien zerbitzuei buruzko asebetetze-maila neurtu. Honela, gaur egun eskaintzen diren zerbitzu/prestazio eta laguntzen eta eskatzen direnen arteko "zuloa" identifikatu eta baloratu ahal izateko eta behar izanez gero osatzeko aukera legoke.
- Herritarrengandik hurbilago egongo diren gizarte zerbitzuak eskaini; espazio berri bat, zain egoteko espazio erosoak, umeak egoteko gunea, harrera egingo duten langileak.

3.1.2 ekintza: 185/2015 Dekretua (gizarte zerbitzuei dagokiona) garatu.

3.2. Jarduera programa: herritarren osasuna hobetzeko eta menpekotasuna prebenitzeko baliabideak sendotzea.

3.2.1. ekintza: zaintza lanak balioan jartzea eta lanen egoera hobetzea, bai langileena, bai jasotzen dutenena:

- Zaintza arloko baloreak berreskuratzeko erroko ekimenak aurrera eramatea.
- Egun zaintzaz arduratzen diren emakume edota etorkinen lan baldintzak hobetzeko neurriak hartzea.
- Zaintzaileei prestakuntza eta ezagutza eskaintzea.
- Menpekotasuna dutenek jasotzen duten zaintza-lana duina izatea.

3.2.2 ekintza: menpekotasunaren aurrean eredu ezberdinak aztertu:

- Etxebizitza komunitarioak, belaunaldi arteko programak, etab. garatu.
- Pertsonak etxean artatzea lehenetsi eta horretarako baliabideak sortu eta garatu.
- Pertsonen autonomia maila mantentzeko ekintza zabal eta anitzak garatu: osasun mahaia, "Bergara oinez", intentsitate baxuko zerbitzuak, menpekotasuna atzeratzeko programak, etab.
- Auzoetako herritarrak zahartzen ari direnez, zahartzarorako egiturak sortzea (zaintza, ekintzak, garraioa, etab.)

3.2.3 ekintza: menpekotasun maila arinei laguntzeko baliabide teknologikoak garatu.

3.2.4 ekintza: menpekotasunen prebentzio-plana garatu.

3.2.5 ekintza: menpekotasun egoeratik irten eta gizarteratze prozesuak bultzatu administrazio ezberdinekin elkarlanean.

3.2.6. ekintza: Edadetuen kontseilua sortzea:

- 3. adineko arazo eta beharrei ahotza emateko,
- Era koordinatu eta sendo baten bidez Udalari eskaerak egin eta bideratzeko.
- Zahartzaro aktiboa sustatu.

3.2.7. ekintza: Bergara osasuntsu bat izan dezagun, herritarrak txikitatik elikadura osasuntsu bat eta bizitza aktiboa izan dezaten trebatzea.

3.3. Jarduera programa: herri integratzaile eta inklusiboa garatzea, herritarren aniztasun ezberdinak aintzat hartu, babestu eta ahalduzko lankidetzaren sarea osatuko duena.

3.3.1 ekintza: kultura-aniztasunaren gaineko azterketa egin eta kultura-aniztasuna bultzatzeko plan bat garatu.

- Kanpo kontratazio baten bidez azterketa eta plana aurrera eraman.
- Planaren emaitzaren arabera erabaki udal barruan teknikari/sail espezifikorik behar den.

3.3.2 ekintza: aniztasun funtzionala duten haur, nerabe, gazte eta helduei zuzendutako aisialdi eskaintza osoa sortu eta Udaletik eskaini.

3.3.3 ekintza: adin, jatorri eta ezaugarri ezberdineko herritarrei begira, kultura ezberdinak elkarren artean ezagutzeko ekimenak antolatzea eta partekatze espazioak (fisikoak eta denborazkoak) sortzea, elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko:

- Bergaran dauden nazionalitate ezberdinetako herritarrak/elkarteak erakutsiko duten jaia antolatu plazan (“kultura-aniztasunaren jaia”). Bakoitzak bere jatorriko herrialdeko jakiak, musika, hizkuntza,... ezagutzera emateko.
- “Aniztasun astea” antolatzea (arrazarteko azoka, Mundumira ekimena oso positiboa zen), irabazi asmorik gabekoa.
- Udalaren eta migratzaile-kolektiboen arteko harremanak sendotu foro eta ekintza ezberdinen bitartez. Memoria inklusiboagoa sortu, harreman iraunkorrak ahalbidetu.
- Kirol praktika “denon eskura” jartzeko, etengabeko aukera berriak planteatu.
- Kirol praktika anitzak sustatzeko eta herritarren aniztasunari egokitzen zaizkion ekimenak sustatu.
- Herri integratzaile baterako irabazi asmorik gabeko ekimenak aurrera eramatea (Mundumira, esaterako), ikastaro guztietarako (aisia, kirola, hezkuntza... edozein arlotakoak) dirulaguntzak eskaintzea (horien baldintzak ez horren zorrotzak eta tramitazioa errazagoa), baita horien bitartez integrazioa bilatzea ere.

3.3.4 ekintza: fiskalitate progresiboagoa egin, herritarren gaitasun/ahalmen ekonomikoen araberako “esfortzu” progresibo bat ezarriz.

3.3.5 ekintza: Bergara herri hezitzailea izateko aurrerapausoak ematea:

- Herriak hezi egiten duen kontzientzia zabaltea, herritar orok bere hezitzaile rola landu dezan.
- Irakaskuntzari bideratutako baliabide gehiago sustatu, ikasleen egoerak eta beharrak kontuan edukiz.
- “Haurren hiri” ekimena Bergararen errealitatera egokitzeko aukerak aztertu.

3.3.6. ekintza: aniztasun fisikoak aintzat hartzen dituen hiri irisgarriago bat prestatzeko politikak garatu.

4. HELBURU ESTRATEGIKOA: GIZARTE EUSKALDUNA BERMATZEA ETA KULTURA-, KIROLA- ETA HEZKUNTZA- SORKUNTZA ZEIN ESKAINTZA ZABALA SUSTATZEA, ERAGILEEN ARTEKO ELKARLANEAN OINARRITUTAKOA.

4.1. Jarduera programa: eremu eta gune ezberdinetan euskararen erabilera indartzea eta suspertzea, tresna positibo, integratzaile eta inklusibo gisa, herriko eragile eta entitateen arteko harremana euskaldunduz.

4.1.1 ekintza: herritarren arteko euskarazko harremana sustatzea, ez soilik euskaldundutzea, Bergara “Arnasgune” izateko bidea eginez:

- Elkarren arteko harremanak euskaraz izateko herriko entitateen arteko akordio, hitzarmen handi bat osatzea.

- Aisia euskaraz bermatzeko asmoz, gazteekin aisian lan egiten dutenen kontzientziazioa, trebakuntza, ... bultzatzea (musika-irakasleen artean, kirol-entrenatzaileen artean, etab.).
- Teknologiak baliatzea hizkuntzen erabilera eta ezagutzarako (adibidez, momentuko itzulpenen bitartez hizkuntza desberdineko herritarren arteko komunikaziorako).
- Errefortzu saioak, eskolaz kanpokoak,... bezalako ekimenak baliatzea euskara ezagutzera emateko (baita kirolak, kultura, ...).
- Gurasoei aholkularitza eta espazioak eskaintzea (“Auzoko” moduko ekimena, baina eskola komunitatearen baitan).
- Udalekuak ospatzea, komunitate sentimendua sortzen dutelako eta, era berean, euskara nahiz kultura bezalako gaiak lantzeko edo horiekiko atxikimendua lortzeko potentzialtasuna izan dezaketelako.
- Ekintza zehatz esanguratsuak garatzea (antolaketa handia dutenak) pertsonen euskararekiko aktibazioa bultzatzeko: Euskaraldia edo antzeko ekimenak, asmatuta dagoen edo asma daitekeen abesti erakargarriek atxikimendua edo komunitate sentimendua sortzen dute (Gure Esku Dago ekimeneoak bezala, adibidez).
- Adin bereko haurren gurasoen artean Berbalaguna sustatu, elkartzen edo egoten diren espazioen arabera antolatuta.
- Batez ere haurrak nagusi diren herriko eremuetan euskaraz hizketan dauden ume eta nagusiak sorpresa moduan sarituko dituen pertsonaia, panpina edo errol moduko bat sortu, kalean edozein momentutan gerturatu eta pegatina itsatsiko duena (kanpaina bat egiteko ideia litzateke).
- Udalak dituen baliabideekin gaztetxoek eta nerabeek horrenbeste erabiltzen dituzten sare sozialean azterketa bat egitea, hortik euskarazko eredu egokiak atera eta eredu horiek zabaltzeko.
- Herri-curriculum bat sortzea eta euskarari nahiz euskal kulturari lekua egitea (batez ere Bergarako euskara, Bergara inguruak eta bertako kultura sustatzeko).
- Euskararen “Arnasgune funtzionalak” (euskara ohiko hizkuntza izango den guneak) sortu udalerriko eragileekin eta udalerriz gaindiko entitateekin elkarlanean bideratutako egitasmoen bidez: enpresa mundua, merkataritza, kirola, etab.
- Euskal erreferenteak ezagutzea eta ezagutaraztea, horretarako transmisio ekintzak aurrera eramanez (adibidez, Baga Biga).

4.1.2 ekintza: inklusioa helburu, etorkinei euskara gerturatzeko ekimenak sustatzea:

- Etorkinei euskara irakasteko “Auzoko” ekimena berraktibatu.
- Migratzaile gazteei (haur, gazte, familia) begirako programa integrala diseinatu eta ezarri, euskara bizipen positiboekin lotu dezaten lortzeko.

4.1.3 ekintza: euskara ikastea erraztea eta, horretarako , beharrezko baliabideak ugaritzea:

- Metodologia ezberdinak garatuz: “ulersaioak, etab.
- Doakotasuna gutxienez B2 maila arte (hori barne) ezartzeko neurriak hartu.

4.1.4 ekintza: ingurune digitalean euskara sustatzeko gidalerroak idatzi eta ekimenak gauzatu.

4.1.5 ekintza: ESEP 2018-2022 plana gauzatu eta jarraipena egin. Hurrengo lau urteko planak diseinatu eta bideratu.

4.2. Jarduera programa: hezkuntzarako, kultura, kirol eta aisiarako egitasmoak, azpiegiturak eta baliabideak hobetzea eta sendotzea.

4.2.1 ekintza: elkarteei eta bestelako eragileei behar dituzten espazioak eskaini:

- Gaur egun dauden lokalen inguruko azterketa bat egitea, horien egoera hobetzeko inbertsioa bideratzeak merezi duen ala espazio handi bakar baten baitan lokal berriak eraiki behar diren erabaki ahal izateko. Azterketa horren emaitzetatik abiatuz, udal lokalen politika bat zehaztuko da (elkarteen arteko sinergiak sortzea helburuetako bat izan beharko litzateke).
- Gaur egun elkarteek (entseguetarako, bilkuretarako, etab.) erabiltzen dituzten lokaletan dauden inbertsio- eta mantenu-beharrei lehenbailehen erantzun bat eman.
- Kultura-sorkuntzarako eta kultura-ekimenen gozamenerako beharrezkoak diren guneen inguruko hausnarketa bat abiaraztea, eta Udaleko kultura-zerbitzuak bertan kokatzea.

4.2.2 ekintza: Udalak kultura-bitartekari moduan jardutea, kultura-elkarteei eta bestelako eragileei behar dituzten baliabideak erraztu eta laguntza eskainiz:

- Kultura-jardueren agenda bateratua eta zabala izatea, baita eskaintza adin guztiak kontuan izanik egitea ere, euskararen presentziarekin batera.
- Herriko sortzaileak bultzatzea, plaza ere eskainiz.

4.2.3 ekintza: Arrizuriagan kultur sorkuntzara bideratutako egitasmoa abian jarri.

- Eraikina egonkortu.
- Arrizuriagako kultur proiektua herriko eragile eta norbanakoekin adostu.
- Kultur proiektua martxan jarri.
- Eraikinak duen kanpo espazioaren potentzialtasuna ere kontuan izan kultur proiektua diseinatzerakoan.

4.2.4 ekintza: Miguel Altuna eraikinak etorkizunean izango duen erabileraren inguruko hausnarketa prozesua abian jarri.

4.2.5 ekintza: Kiroletako plan estrategiko berri baten aukera aztertu, kiroleko instalazioak hobetzeko inbertsio-plangintza bat ere barneratuz:

- Lehenik, kirol instalazioen gaur egungo beharren azterketa egin (kantxa nahikoak ote dauden, estali beharreko frontoiak, etab.), etorkizuneko beharrak ere aurreikusteko lanketa bat osatuz.
- Kiroletako instalazioak hobetu eta haur nahiz gazteek entrenatzeko dituzten ordutegiak egokitu behar dira (haurrentzako desegokiak izateaz gain, egunaren amaiera aldera diren ordutegiek kontziliazioa zailtzen dute).
- Estalitako kirol-instalaketak hobetu/berriak sortu herriko kirol elkarteek duten beharretara ahal dela egokituz.
- Kanpoko igerilekuaren egoera hobetu.
- Frontoia irisgarria izateko neurriak martxan jarri.
- Bizikletaz-patinetez ibiltzeko "pump-track" a egin. Adb: Elementalaren ondoan.
- Urteko kirol zein aisia-jarduerak antolatzeke garaian Udala eta eragileen arteko komunikazioan sakondu.

- Monitore/entrenatzaileen beharra aintzat hartzea eta hauen prestakuntzarako laguntza ekonomikoak ematea
- Udal web gunean kirol izaerako jardueri toki gehiago eskaini.
- Kirol elkarte zentrala sortu, kirol elkarten arteko zubiak eraikitzeko
- Haur eta gazteek kirol elkarteekin duten lotura denboran luzatu (batez ere emakumeetan), bai jokalaria bezala baita beste edozein egin beharretan.
- Kirol-eragileek antolatzen dituzten ekintzak baimentzeko prozedura arindu.
- Antolatzen diren kirol-ekintzetan bestelako eragileen inplikazioa lortu (industriak, merkataria, etab.)
- Kirol-egokiturako aukerak zabaltzea eta erraztu
- Antolatzen diren ekintzen inguruko balorazioak egin eta emaitzak aztertu.
- Diru-laguntzak berrikusi (gehiago behar ote diren aztertuz, daudenak izapidetzeko orduan elkarteek izan ditzaketen zalantzak argituz edo dirulaguntzak kudeatzea erraztuz, etab.).

4.2.6 ekintza: auzoetan kirol praktika errazteko eta sustatzeko hausnarketa prozesua egin eta plana garatu.

4.2.7 ekintza: aisia-eskaintza hobetzeko eta aisiarako guneak inklusiboak eta integratzaileak izateko baliabideak eskaini:

- Pizgarri ekonomikoak aztertu (gehiago behar ote diren, daudenak izapidetzeko orduan elkarteek izan ditzaketen zalantzak argituz edo dirulaguntzak kudeatzea erraztuz, etab.)
- Labegaraieta ingurua Bergarako arnas-gune osasuntsu bihurtzea.
- Haurrentzako jolastoki egokiak edo aproposak sortzea, natura ere ikasgela bihurtuz eta haurren jolas-aukera ezberdinak bermatuz.
- Aniztasun funtzionala duten haurrei baliabide gehiago eskaintzea (eskolatik haratago, aisia-aukera egokiak eskaintzea -adibidez, udalekuak-).
- Kontzientzia ekologista lantzea: baratze komunitarioak, bertako basoen berreskuratze kolektiboa, pasealeku, parke edo mendi-bideak zaindu eta erabilera bultzatzea, Laboratoriuma lanketa horretan erreferente bilakatzea.
- Antolatzen diren ekintzen inguruko balorazioak egin eta emaitzak aztertu.

4.2.8 ekintza: Laboratorium museoaren suspertzeko eta ezagutzera emateko udal-programa bat diseinatu.

- Bildumaren programa (sarrera berriak/kontserbazioa/dokumentazioa)
- Ikerketa programa.
- Hedapen/komunikazio programa.
- Azpiegitura/antolakuntza programa.
- Elkarlan programak

4.2.9 ekintza: Bergarako eskola kirolaren berrikuspenean egitea.

4.3. Jarduera programa: eragile ezberdinen arteko hartu-eman eta elkarlana bultzatzea (ikastetxeen arteko erlazioa, herriko elkarteen arteko erlazioa, etab. landu, elkarrekiko komunikazioa hobetu eta elkarlanean aritu, proiektuak amankomunean jarri eta sinbiosian lan egiteko).

4.3.1 ekintza: elkartegintza zaindu eta babestea:

- Elkartegintzara zuzendutako dirulaguntzen azterketa egin: Elkarteen premiak aztertu eta hauen baitan laguntza eskaini.
- Elkartegintza hezkuntza arlotik bideratu.
- Herritarrak elkarte ezberdinetan parte hartzera motibatu (Direktibak, teknikoak, laguntzaileak....)

4.3.2 ekintza: eragile askoren partaidetza eskatzen duten ekintzak diseinatu, koordinatu eta antolatu, elkarlana egitasmoetan gauza dadin.

4.3.3 ekintza: hezkuntzako sare ezberdinak gaindituko dituzten eremuak zein ekimenak sortu, elkarlana sustatzeko:

- Hezkuntza formalak eta ez formalak sarean lan egitea.
- Hezkuntza mahaia sortu: bertan adostu beharko lirateke epe ertain luzean martxan jarriko diren egitasmoak zeintzuk izango diren.
- Herri-kurrikuluma garatzea eta gauzatzea.
- Bergara Herri hezitzailea egitasmoa aurrera eramateko aurrerapausoak eman.
- Ekintzen egutegi bat sortzea guztien artean, eragile txikiek elkar laguntzeko aukera izateko eta herrira begirako ekintza bateratuak sortzea.
- Proiektuak lan egiten den heinean, proiektu horiek herrira zabaltzea edo Eskolako Agenda 2030 programan antolatu daitezkeen jardueren parte izatera igarotzea.
- Kultura-ondarearen transmisioa burutzea.
- Diziplina ezberdinak hezkuntzan ezagutaraztea (bertsolaritza, antzerkigintza...).
- UNED eta Udalaren arteko sinergiak batu, UNED herritartzeko eta herritarrek UNEDeko espazioak erabiltzeko aukerak irekiz.
- "Osasun sarea" indartu eta sustatzea.

4.3.4 ekintza: segregazioari aurre egiteko plana garatu:

- Eusko Jaurlaritzarekin batera, segregazioaren gaia herri mailan lantzea. Proiektu pilotu bat martxan jartzea.
- Inklusioa bermatzeko euskaldun-etorkin ratioak zaintzea. Bergarako derrigorrezko eskolaratze adinean dauden ikasle etorkinak maila orekatuan banatzea (horretarako, hezkuntza arloko erakundeak zein eragileak eta Udala elkarlanean aritu beharko lirateke)
- Hezkuntza inklusiboa bermatu, aniztasuna kontuan hartuz.

5. HELBURU ESTRATEGIKOA: HERRIGINTZA ETA GOBERNANTZA UZTARTUZ, BERGARA INKLUSIBOA BILAKATZEA.

5.1. Jarduera programa: gobernantza eta partaidetza eredu berri baterako lan egitea.

5.1.1 ekintza: kudeaketa-eredu ezberdinak aztertu (gobernantza ereduak) eta sorkuntza zein herritartasuna sustatzeko espazio ireki/irisgarriak sortu:

- Bergaran eraldaketa soziala sustatu eta baliabideak eskaintzea
- Herritarren lankidetzaren sareak sortu eta komunitatea sortzeko bidea egin, sentitze komunitarioak landuz eta udala zerbitzu-emaile eta herritarra zerbitzu-hartzaile logika apurtuz.
- Herritarrei zuzendutako zerbitzuen kalitatea bermatzeko asmoz, Udalari beharrezkoak diren baliabideak eskaini.
- Haurtzaroren kultura onartzea eta errespetatzea. Haurrei zein gazteei hitza ematea eta erabaki-guneetan euren lekua eskaintzea.
- Auzoetako auzo-izaera lantzea.
- Auzo guztietan plan estrategiko zehatz bat lantzea ikuspuntu denak lantzeko (ez bakarrik azpiegiturak), beharrak identifikatzeko.
- Udala nahiz hezkuntza-eragile ezberdinak irekiagoak, hurbilagokoak, izateko asmoz, Udalak hezkuntza-eragileekin eta kultura-eragileekin koordinazio-maila altuagoa lortzeko bideak bilatu.

5.1.2 ekintza: herritarren ordezkariak izango duten udaleko gaikako aholku kontseiluak sortu:

- Haur eta nerabeen partaidetzarako organo egonkorra.
- Emakumeen organoa.
- Hirugarren adineko organoa.
- Landa-izaerako auzoetan bizi diren herritarren partaidetza ahalbidetzeko aukera/mekanismo ezberdinak aztertu.

5.1.3 ekintza: Udalak erakunde moduan dituen helburuak gauzatzeko behar dituen baliabideen azterketa egitea:

- Barne-mailako hausnarketa prozesua abiaraztea.
- Plan Estrategikoaren kudeaketa eraginkorrerako eginbeharrak, funtzioak eta ardurak definitzea.
- Eskainiko diren zerbitzuen definizioa osatu.
- Espazioen erabilera eta azterketa egin.
- Plantillaren azterketa burutu: langile nahikoa dagoen eta egitekoak ondo definituta dauden jakiteko, eta planifikazioa egiteko.

5.2. Jarduera programa: herritarren eta udalaren arteko komunikazio eta harremanak aldebikoak izateko lanketa burutzea.

5.2.1 ekintza: herritarrei teknologia berriek eskaintzen dituzten kanalak eskura jartzea Udalarekiko harremana errazteko:

- *Whatsapp*, etab.
- Harremanen digitalizazioan sakontzea, teknologia berriei atea irekiz.

5.2.2 ekintza: digitalizazio bidean aurrez aurreko kanalak ez ahaztea eta zaintzea.

5.2.3 ekintza: herritik kanpo bizi diren bergararrak presente izatea euren potentzialitatea baliatzeko eta herritarrekiko lotura sendotzeko:

- “Bergarako enbaxadoreak” kontzeptua barneratzea, hau da, Bergaratik alde egindako herritarrekin ekimenak aurrera eramatea, duten ezagutza edo testuingurua baliatuz.
- Enbaxadore hauen egitekoak zehaztea.

5.3. Jarduera programa: emakume eta gizonen berdintasunerako politika publiko eraginkorrak abiaraztea.

5.3.1. ekintza: berdintasun-plana berrikusi eta bertan jasotakoak gauzatzeko baliabideak bideratu.

5.3.2 ekintza: berdintasun saila sortu eta beharrezko baliabideak bideratu ekimen zehatzak lantzeko.

5.3.3 ekintza: emakumeentzat erreferente izango den gunea sortu:

- Besteak beste, aniztasuna, zaintza duina landuko dituen
- Prestakuntza, aholkularitza-zerbitzua, etab. eskainiko dituen

5.3.4 ekintza: berdintasuna normalizatzeko, beste arloetan barneratu (koordinatu) eta ezagutzera emateko etengabeko eskaintza sortu eta ezarri.

5.4. Jarduera programa: Bergaran gizarte inklusibo eta jasangarria lortzen laguntzeko elkarkidetza eta aliantzak sustatzea.

5.4.1. Bergarako Udalaren aliantza-sarea indartu eta zabaltzeko ekimenak gauzatzea.

5.4.2. Kontzientzia komunitarioa sustatzeko nahiz errotzeko egitasmoak antolatu, elkar laguntzeko eta solidaritatea bultzatzeko.